

Ekologikoan, nahiko berde

Nekazaritza ekologikora zuzendutako azalera handitzen ari da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina oraindik eskasa da. Medio gehiago galdegin ditu Ekolurrak Europako helburuak lortzeko.



Zerealaren azalera ekologikoa gero eta urriagoa da. PHOT. OK.

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE
Nekazaritza ekologikoa hazten ari da, baina ez behar duen eritmoan. "Bidean gaude, baina oso atzeratuta", ohartarazi zuten Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEE-Ekolurra) kideek Eusko Legebiltzarrean iaz egin zuten agerraldi batean.

Martxoan aurkeztu berri dituzten azkeneko datuek berretsi dute esandakoa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza lurren %9 soilik dago ekologikoan, Europako Itun Berdearen helburua betetzetik oso urrun: 2030ean lurren %25 eredu ekologikoan kudeatzera heltzea, alegia.

Ekolurrak azpimarratu du ekologiko bezala inskribatutako azalera asko hazi dela, eta sektorearen eboluzioa 2009 urtetik gaur arte oso inportantea izan dela. "Halere, 2030 urteari begira oso atzeratuta goaz, eta aldapa hori igotzea zaila da, baina hori lortzeko medioak jarri behar ditugu".

Hazkundera mahastietan

Bizkaia eta Gipuzkoaren parean, Araba da ekologikoan nekazaritza lur gehien duena, 7.514 hektarea; herrialdeko nekazaritza lurren %6,7. Ekolurrak emandako datuen arabera, ekologikoaren buru diren udalerririk Kuartango eta Arraia-Maeztu dira, Arabako azalera ekologikoaren liderrak. Eta biek ezaugarri komun bat dute: larreen eta belardien garrantzia.

Hirugarren postuan Guardia dago, 650,2 hektarearekin, baina kasu honetan eredu desberdina da, mahasti ekologikoari baitagokio gehiena. Zigoitia, Samaniego, Lantaron edo Lantziego bezalako udalerririk hamar onenen liderren zerrendatik kanpo daude, baina azalera garrantzitsuak dituzte guztiek.

Ekolurrak azaldu duenez, azalera ekologikoaren banaketak bi errealitate argi murratzen ditu Araban. Barrualdean eta mendialdeetan larreak eta belardiak dira nagusi, abeltzaintza estentsiboari lotuta. Arabako Errioxan, berriz, hazkundera mahastizaintza ekologikoan oinarritzen da, eta azken garaian bultzada garrantzitsua izan du.

"Mahatsgintzan Errioxan garapen bat egon da, eboluzio bat, potentzia, baldintza egokiak, oso egokiak direlako nekazaritza ekologikoa egiteko. Isuri Atlantikoan edo kantauriar isurialdean zailtasun gehiago daude", azaldu du Ekolurra erakundeak Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian.

Galera larria zerealean

Hala ere, zenbait landaketa estentsibotan jaitsiera eman da aurren; Arabako lekale eta patatzen azalaren beherakada horren adibide dira. Beherakada horretan larriena urtetik urtera zerealen ekoizpen ekologikoan gertatzen ari da. 2025ean, 262 hektarea baino ez daude ekologikoan, 2024an (272 hektarea), 2020an (366 hektarea) edo 2019an (292 hektarea) baino gutxiago. Beraz, zereal ekologikoaren azalera ez da azalera osoaren %1era iristen.

Ekolurrako arduradunek Gasteizko Legebiltzarrean azaldu duenez, arazoa merkaturatzean eta sektorean dagoen estrategia propioaren faltan dago. "Merkaturatze kooperatiba batzuk daude hor; prozesu nahiko industrializatuak dira. Eta Garlan da Araban daukagun kooperatiba garrantzitsuenak, pixka bat sektore horri erantzuten diona. Eta beraiengandik jasotzen dugun mezu da bezero handiek bideratzen dutela norantz jo, eta benetan ez daukatela ekologikoarentzat merkaturik. Gure

Azalera ekologikoan liderrak

Udalerrria	Hektareak	Laborea
Kuartango	1.219,6	Larreak
Arraia-Maeztu	671,2	Larreak eta labore estentsiboak
Guardia	650,2	Mahastizaintza
Bernedo	596,6	Larreak eta labore estentsiboak
Erriberagoitia	530,7	Larreak eta labore estentsiboak
Gasteiz	435,9	Eredu mistoa
Eltziego	332,5	Mahastizaintza
Barrundia	281,6	Larreak
Kanpezu	227	Labore estentsiboak
Oion	193,7	Mahastizaintza

ITURRIA: ENEEK

ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO NEKAZARITZA LURREN %9 BAKARRIK DAGO EKOLOGIKOAN

ustez, konbikzioa falta da, falta da apustua, eta argitasun falta bat ikusten dugu. Uste dugu ez daukatela estrategia propio bat, hori falta zaio landaketa estentsiboen sektoreari", azaldu dute.

Ekolurraren irudikoz, ekoizpen industrialarekin bilatu izan dena da ekoizpen kantitate gehiago egitea, eta inkluso esportatzeko; "hori da politikarik ohikoena". Eta ekologikoan, aldiz, efizientzia bilatzen da: "Erabiltzea daukagun baliabide naturalak era iraunkor batean elikagai osasuntsuak sor-

ITUN BERDEAREN ERRONKA SOILIK AUSTRIAK BETEKO DU, EREDU EKOLOGIKOAN %27 DUELAKO

tzeko", eta orduan planifikazioa desberdina da. "Planifikazioa ez da esportatzeko eta gero erosteko".

Nekazaritza konbentzionalean orokorrean egiten den kimikoen erabilera jaisten joan behar dela ere aurreratu du Ekolurra. "Tritsiko gara lehenago edo beranduago nekazaritza ekologikora, baina trantsitua behar da". Beraz, gaur gaurkoz Europako Itun Berdearen 2030eko erronka soilik Austriak bete luke; %27ko bultzatan baitago.